

**Aldiz, aldiz...!**

JOSTIRUDIA EGINTZA BATEAN

BARRIOLA ETA AIZPURUA-TAR JUAN ABELINOK

IDATZIA

ETA AZKOITIKO EUSKAL JAIALDIETAN SARITUA

1910garren URTEAN

DONOSTIAN

J. BAROJA ETA SEMEEN MOLDIZTEGIAN

1911n

IRUDIGILEAK

EUJENIO	Zapatagilea
KRISTOBAL	Indianoa
LEONTXIO	Ikasle gaztea ( <i>estudiantea</i> )
LIBORIO	Asistentea
ROMUALDO	Artilleriako kapitaina.

EUJENIO da sasoiko gizaseme bat. Egongo da mahuka hutsik eta amantal urdina jantziarekin.

KRISTOBAL da zaharra, hirurogei urteren inguruan dabilena. Guztiz ondo jantzia, baina kaleko antzean txapel *hongo* esaten zaionarekin, eskumakila edo basto helduleku zilardunarekin, erlojuaren katea lodia eta zintzilikario handiduna.

Ilea du beltza eta ondo orraztua, erreten zuzen eta garbiarekin. Oso txukuna eta urteak ezkutatu nahian dabilena.

LEONTXIO da gaztea, hogeita bost urte ingurukoa. Ondo jantzia txapel bigunarekin, baina ibilera eta agerkera guztietan lasaia eta utzi xamarra.

LIBORIO, soldadu zerbitzen dagoen mutil gazte bat.

ROMUALDO, gizon beltzaran itsusi bat. Sudurra du motz xamarra eta ezpainpeko bizarrak beltzak eta luzeak. Erdaraz *chaqué* esaten zaion janzkeraz ondo apaindua. Eskuan makila.

Ezker-eskuinak ikusleenak.

EGINTZA BAKARRA

Iruditegiak antzarpetuko du zapatagile baten denda arlotetxo bat, laburra lekuz eta gauzaz. Eskuinetan edukiko du lantokia; mahai xar batekin eta bi aulkixorekin osatua. Mahai gainean laneko tresnak, erretilua, iltze potoak, hariak... Mahaitik zintzilik kalamu puntak, burdinak... Lurrean, mahaipean, tinakoa, eta inguruan zapata zahar batzuk, *hormak*, jo-harria, mailua... Atzean horman (paretan) bi iltzetatik zintzilik boina eta zamarra. Dendak du atzeko ate bakarra kristalduna, bi orrikoa, baina bat bakarrik irekitzen zaiona. Irekitzen ez den alderdian dago *eskaparate* bat. Ezkerretan, atzean, eserleku bat gainean ispilu batekin eta lurrean alfonbra txiki bat duela. Lekuz leku *xanto* batzuk eta beste zerbait gauza. Mahaiaren aurrean, denda erdibitzen duela, egurrezko itxi txiki bat, mostradore baten antzera bi aldeetatik, atze eta aurre, sarrera duela. Itxi honen ondoan *sila* bat.

#### LEHENBIZIKO IRUDIA EUJENIO (bakarrik)

*Eujenio, zapatagilea, ariko da zapata zahar bati takoia berritzen mailuz joaz.*

EUJENIO

To... to... to...! zapata zahar hauen jabea hemen baneuka, a zer tapatekoak emango nizkiokeen bere sudur okerrean!... Neskazahar... sorgin... petral... argal... zipotz... itsusi... arlotea!!... (*Hitz bakoitzean emango du mailukazo bat; azkenean bi edo hiru.*) Berriz ere egongo zara, bai, neskazahar! Ez duzu zuk zoratuko inor, oin polit txoragarria gonapetik erakutsita! (*Labanarekin puska batzuk atereaz.*)

Berritan, luzatzeko, arrabeteko takoia behar ditek, eta gero zapatagilea aberasteko beldurraz, orporaino jaitsi arte ez ditiztek ekartzen berritzera. (*mailuz berriz joaz*) Ez ote dut zuzenduko!... a ja ja... ja ja...! lukainka motza zirudik!... Hau duk itxura! (*ernegatu eta zokora boteaz.*)

Mila arranorekin hoa bazterrera!... ez haut bat ere gehiago ukituko. (*Altxa eta aurreratuaz.*) Lantegi madarikatua. Egun guztian aulkian lotuta egon behar, bi babarrun ale jateko... (*Patrikari helduaz.*)

Ezer ez... igandean gelditu zitzaizkidan txakur batzuk bota nituen atzo zurrutean, astelehen egin da, eta orain zintzurra bustitzeko ezer ez... eta atzo baino egarri gehiagorekin... Neskazahar horren zapatek ditek kulpa... banoak nonbaitera. (*Amantala gerrian bildu eta ate aldera joan bitartean abestuko du*)

Neskazahar, zar, zar  
denbora pasatu  
zertarako lehenago  
ez zinen ezkondu?

(Oso samin eta  
atsekabez)

Nik ezin esan  
inork ez esan  
horrengatik neskazahar  
gelditu nintzen!

(Atean bertan bihurtuaz)

Arranoa!... Hemen zetorren etxe-jabea!... Ez zakiat nik  
zer dabilen inguru hauetan! Etxe-errenten eske ote  
dator berriz? Garai onean!... joango duk etorri bezala.

## II. IRUDIA EUJENIO eta KRISTOBAL

*Kristobal azalduko da, eta egun on eman ondoren geldituko da ate  
ondoan, karrikara begira.*

KRISTOBAL Egun on, Eujenio.  
EUJENIO Hona zetorrek! Jar nadin lanean... Baxoerdiaren ordez  
har dezadan neskazaharraren zapata. (*Eskuan hartuaz.*) Zatoz aingerutxoekin oin polita!  
KRISTOBAL (*Lehen bezala ate ondotik.*) Egun on.  
EUJENIO Egun on. (*Mailuaren ordez, hartu eta hasiko da zapatarekin berarekin harria joaz.*) Zer ari naiz ni?... lehen gaizki bazegoen, orain okerrago jarri dut... baina zer egiten du gizon horrek hor?  
KRISTOBAL (*Lehen bezala.*) Egun on, Eujenio.  
EUJENIO (*Indar handiarekin.*) Baita berorri ere. Egun on!!  
KRISTOBAL (*Sartuko da barrez eta oraindik karrikarantz begira.*)  
Egun on, Eujenio. (*Eujeniok begiratuko dio, baina ez dio erantzungo.*) Egun on, Eujenio.  
EUJENIO Hemezortzi bider erantzun diot.  
KRISTOBAL Niri?... noiz?  
EUJENIO Orain... *kikilibiotan* hasi zela uste nuen ate ondotik.  
KRISTOBAL Bai, *presisamente* horretarakoxe gogoia ekarri dut. (*Bat-batean haserretuaz.*) Ordubete behar izan dut hona iristeko.  
EUJENIO Sinisten dut, hemengo antzera ibili bada.  
KRISTOBAL Bai, bide guztian honela etorri naiz... (*Herren eginaz*)  
EUJENIO *Kikilibiotan?*  
KRISTOBAL Ez, zurengatik *txingoka*... zer jarri didazu honen barrenean? (*Soineko bota erakutsiaz.*)

EUJENIO Zera, bost durokoren bat.  
 KRISTOBAL Bost ez ezik hogei ere hartzeko gaian nago. *Presisamente* hemen dakartzat zor dizkidazun lau hilabeteko errenten txartelak.  
 EUJENIO Gorde bitza ondo, galdu gabetarik, horrenbeste balio duten paperak.  
 KRISTOBAL Noiz eman behar didazu dirua?  
 EUJENIO Ahal dudanean.  
 KRISTOBAL Noiz izango da egun hori?  
 EUJENIO Erraza da asmatzen... Sorgina naizela uste al du etorkizunaren berri jakiteko?  
 KRISTOBAL Zureak gehiago?... Airean joan behar duzu denda honetatik, bai! (*Lurrean ostiko handi bat joko du eta berehala egingo du antsia.*) Ai!!... sartu zait hesteetaraino!  
 EUJENIO Nire dirua?  
 KRISTOBAL Zure... demonioa... ai! ai!...  
 EUJENIO Baina zer du?  
 KRISTOBAL Atera iezadazu agudo, atera iezadazu; baina poliki. (*Eseri eta bota erakutsiaz.*)  
 EUJENIO Iltzeren bat al dauka?  
 KRISTOBAL Iltzea edo eztena ez dakit, baina gutxienaz honenbestekoa bada. (*Behatza bezain handia.*)  
 EUJENIO Hori maiz gertatzen da... eta horrengatik horrenbeste zalaparta?  
 KRISTOBAL Zabiltza agudo, kaikua. (*Eujenio tenkaka hasiko da baina berehala geldiaraziko du.*) Zaude, zaude, galtzerdia trabatua dago eta puskatuko didazu. (*Askatuko du barrengo galtza zuria, kenduaz zazpi edo zortzi alditan bildua daukan lokarria.*) Ea orain galtzerdi eta guzti ateratzen didazun... ai!... poliki! ai! ai!  
 EUJENIO (*Aterez batean bota eta galtzerdia.*) Bapo! Hona hemen lanperna!  
 KRISTOBAL Nire oin gaixoa... zer dauka?  
 EUJENIO Hutsa, orratzaren burua adinako iltze muturra.  
 KRISTOBAL Atera iezaiozu ondo. (*Jantziko du galtzerdia eta joango da ate ondora.*)  
 EUJENIO Zer ote du hor horrek? Beste maizterren baten zain ote dago dirua eskatzeko? Gizajoak zoru-erdi hau ez ezik beste bi ere urratuko ditu nireak hartu orduko.  
 KRISTOBAL Atera al diozu ondo?  
 EUJENIO Bai, har beza.  
 KRISTOBAL Eujenio, mesede bat egin behar didazu.  
 EUJENIO Nahi duen guztia, dirua ematea ez bada.  
 KRISTOBAL Tori eskutitz hau, eta eraman ezazu aurreko etxeke bigarren bizitzara. Galde ezazu Rosita Sudurpolitenekozaz eta eman iezaiozu berari, esanaz,

erantzupena eguerdirako nahi nukeela eta... zerori joango zarela bila... ez da hala?

EUJENIO Bai, bai... beste ezer?

KRISTOBAL Ez, hori ondo egiten badidazu barkatuko dizut...

EUJENIO Etxe-errenta?

KRISTOBAL Ez, lehenagoko gaizki esanak, eta emango dizut errentaren alde gorde dudan zoru-erdi hauen dirua.

EUJENIO Eskerrik asko, berehala emango balit, zergatik... (*Zintzurrari helduaz.*)

KRISTOBAL Orain patrikan ez daukat; baina ekarriko dizut berehala, etxera noa eta diru bila, hamabostekoa, langileei emateko.

EUJENIO Bai, diru gauza horietan zenbat eta lehenago hobe.

KRISTOBAL Banoa bada, baina ea taxuz egiten didazun eskutitz horren tratua.

EUJENIO Laga niri, ondo ezagutzen dut. Sudurpoliteneko Arroxa.

KRISTOBAL Arroxa ez, Roxita. (*Irtenez.*) Roxita... Roxita...

### III. IRUDIA EUJENIO eta LEONTXIO

*Leontxio sartzetakoan egingo du Kristobalekin estropezu; ibiliko dira ezkerretara eta eskuinera, leku egin nahian elkar galaraziaz eta azkenik Leontxiok erdian geldituaz esango du.*

LEONTXIO Ezkerrera edo eskuinera; batera edo bestera. (*Egingo du batera eta joango da Kristobal.*) Hamaika kaiku Ameriketara aberasten da, eta hau ere bai! Hi, Eujenio, diru bila al huen orain ere?

EUJENIO Bai, mutil, gaur bigarren aldiz.

LEONTXIO Eta zer esan diok?

EUJENIO Gogora etorri zaidan guztia, sartu zioat hankatik iltzea, eta halaz guztiz ere egundaino baino alaiago joan duk. (*Eujenioren aurrean eseriaz.*) Dirua eman al diok bada?

LEONTXIO Dirua? Berak eskaini zidak.

EUJENIO Erotu egin duk orduan.

LEONTXIO Bazirudik zerbait. Emakumeei idazten ere hasi duk eta.

LEONTXIO Nola? nola?...

EUJENIO Begira iezaio. (*Eskutitzaren gaina irakurriaz.*) "Rosita Sudurpoliteneko", hor aurreko neska gazte eder horrentzat.

LEONTXIO Eta hiri utzi al dik?

EUJENIO Hori berari ematearengatik agindu zidak, bada, dirua, baina ez noak hauek egin artean, laster bila ditiat eta. (*Erasoko dio lanari eskutitza mahai gainean lagata.*)

*Leontxiok hartu eta irekiko du, eta irakurtzen ariko da barreak galarazi arte.)*

LEONTXIO

Aja... ja... ja... ja...!!

EUJENIO

Zer duk?... mutil! zer egin didak?

LEONTXIO

Hutsa, irakurtzen hasi... aja... ja...!

EUJENIO

Xahutu nauk, Leontxio!... Orain nola eraman behar diat nik hori.

LEONTXIO

Entzun ezak zer jartzen duen, apur bat entzun ezak.

EUJENIO

Ez diat nik zer jakinik, ekarzak.

LEONTXIO

Hori duk usakumea!

EUJENIO

Ekarzak, Leontxio.

LEONTXIO

Ez, irakurritakoan.

EUJENIO

Habil bada azkar.

LEONTXIO

Entzun ezak:

“Konparaziorik gabeko Roxita, Donostiako lore *presiosa*. Zu ezagutu zintudanetik ez naiz gehiago nire bihotzaren jabe eta dabilkit galdurik *kalma* guzia, saltoka eta saltoka.

EUJENIO

Iltzea ote dauka han ere?

LEONTXIO

“Zure begi ederrek naukate *inutilizatua*, eta gau eta egun, goiz eta arratsalde, beti, beti, nire imajinazioa zure ondotik dabil. A *ermosa!*”

EUJENIO

Ikusiko duk?

LEONTXIO

Ez da agurea motela:

“*Siertamentean* Jaungoikoak elkartu nahi ditu Roxita eta Kristobal. Horrengatik atrebentzi hau hartzen dut *seguridadean* zuk ondo hartuko duzula nire pentsamendua. *Presisamente* etxe berria egiten ari naiz eta han jarri genezake gure palazio eta habia. *Responditu* iezadazu baietz eta egingo nauzu, o Roxita *presiosa!*, gizonik *ditxosoena*.- *Kristobal de los Ernialdes*.”

EUJENIO

Hori jartzen al du?

LEONTXIO

Hori bera, eta hago, zerbait gehiago ere bai: “Egiten ari naizen etxe berriak balio ditu berrogeita bi mila peso, eta beste gehiago ere baditut.”

EUJENIO

Hori beita duk, hobeto heltzeko.

LEONTXIO

Beitarekin ere ez duk erraz amu oker horri heltzen.

EUJENIO

Rositak nahiko ote du?

LEONTXIO

Mila duro asko dituelako bakailao gazi hori hartu?

EUJENIO

Bakailaoa!... saltsan ondo maneatua zagok ordea!

LEONTXIO

Hago isilik, hori ez lukek senarra izango, baizik diruz betetako eltze zaharra. (*Zimurtu eta biribili eta botako du eskutitza tinakora*.)

EUJENIO

Zer ari haiz?... laga ezak hori! (*Altxatuta eta oso bizi*.)

LEONTXIO

Txorakeria hau eramatera joango al haiz bada?

EUJENIO

Astoa hil... niri zer zaidak... Esan ez diat, bada, hori eramateagatik eskaini didala dirua?

LEONTXIO

Hori beste gauzarik duk.

EUJENIO                   Eta ez dakik hik nire etxe jabea dela, eta lau hilabete zor dizkiodala... eta...

LEONTXIO                Eta... zer gehiago?

EUJENIO                   Eta hi txatxu bat haizela... Hi... Hi... zazpi urtean Madrilen sendagile ikasten jardun eta oraindik urte bete osatu ez duana...

LEONTXIO                Eta zortzigarren urtean ez nauk joango dirurik ez didatelako ematen.

EUJENIO                   Hiri, hiri dirua, hoa hemendik bestela...

LEONTXIO                Joango nauk, baina hirekin... baxoerdi bat edatera.

EUJENIO                   *(Tinakotik eskutitza atereaz.)* Hoa hemendik, bestela botako diat mailua... eskutitza jarri duen itxuran!... gizonak hala emandako eskutitza!

LEONTXIO                Era horretan Kristobal baino itsusiagoa hago.

EUJENIO                   Leontxio!!

LEONTXIO                *(Beti barre antzean.)* Sendagile ez nikean ikasiko, baina neskari idazten ondo zakiat, eta eskutitz hori egingo diat berriz.

EUJENIO                   Bai, hik nahi duana... baina...

LEONTXIO                Ez mutil, hori bera, hitz horiekin, hizki *(letra)* berekin, dena den bezala; indianoak berak beretzat hartuko duena.

EUJENIO                   Egin iezadak, bada, berehala, nahi baduk nik gehiago aurpegira begiratzea.

LEONTXIO                Bai al duk zerekin?...

EUJENIO                   Hemen ez.

LEONTXIO                Orduan goazemak auzoko ardotegira eta han egingo diat.

EUJENIO                   Hoa bakarrik, lana zeukaat.

LEONTXIO                Ez duk etorri nahi?

EUJENIO                   Ez.

LEONTXIO                Zaputzengatik hamaiketakoa galduko duk.

EUJENIO                   *(Eskutitza emanaz.)* To hau bestea egiteko.

LEONTXIO                Ez diat beharrik, buruz bazakiat.

EUJENIO                   Dena?

LEONTXIO                Dena.

EUJENIO                   Egin ezak bada azkar, gero ikusiko diat. *(Eskutitz bustia zabalduko du mahai gainean. Sartuko da Liborio eta geldituko da atzean Leontxio joan artean.)*

LEONTXIO                Hemen nauk berehala hi adiskidetzera. *(Ate ondotik.)* Hi, eta jarriko al dut Roxita *ermosa*?

EUJENIO                   Baita *presiosa* ere.

LEONTXIO                Agureari begira!

EUJENIO                   Hiri zer zaik?

IV. IRUDIA  
EUJENIO eta LIBORIO

LIBORIO Hemen ere bai al da Rositaren bat?  
 EUJENIO Zer bada? Etxean honela al zarete?  
 LIBORIO Gizona! Rosita moñoña gora, Rosita polita bera, eztarikoz zuloraino betea naukate.

EUJENIO Zuen neskazaharrari norbait al dabilkio ondotik?  
 LIBORIO Neskazaharra? Ez dizu berak entzuten!; sudur ertzean bazenituzke bi. (*Bi masaileko.*)

EUJENIO Saguzar-tar Rosita, zapata hauen jabea, ezkondu al da?  
 LIBORIO Bai, gizona; gaur da Romualdo de la Quintanila eta Perez de Rostrofeon jaun-andrea.

EUJENIO Zenbatena?  
 LIBORIO Batena.  
 EUJENIO Bat al da hori guztia?  
 LIBORIO Artilleriako kapitain bat.  
 EUJENIO *Artilleroa* izan behar hura hartzeko!  
 LIBORIO Ez dauka berak horretako! Ez dituzu ikusten elkarrekin kalean! Ehun urte badituzte bien artean, eta hemezortzikoak dirudite.

EUJENIO Txoroak!  
 LIBORIO Eta ez emaztearengatik ezer esan. Lehengo egunean, batek begiratu egin ziola edo ez ziola, hartzen du zintzilik zeraman ezpata, eta kankarrarekin garondoan jo zuen.

EUJENIO Eta zer esan zion besteak?  
 LIBORIO Ai!!  
 EUJENIO Beste ezer ez?  
 LIBORIO Ez, korderik gabe erori zen eta.  
 EUJENIO Astoa!  
 LIBORIO Izugarrizkoa. Ez diote elkarri ezer zor. Itsusia baldin bada bat, zakur presakoa dirudi besteak, bere letagin eta guzti.

EUJENIO Zakur presakoa? Orduan ez da harritzekoa saguzarraren atzetik joatea... usainean.  
 LIBORIO Bai usainean. (*Behatzekin diru usaina erakutsiaz.*)  
 EUJENIO Adiskidea! Ez zaitu nagusiak ikusten!  
 LIBORIO Zer nagusi eta zer morroi. Oraintxe ernegatu zait. Soldadu etorri erregeri zerbitzera, diotenez, eta pixa-mordoilokeria guztiak egiten hor narabilte. Lurrari argizaria ematen, andrearen gonak garbitzen, eltzeari aparra kentzen, oheak egiten...

EUJENIO Eta orinalak husten.  
 LIBORIO Baita.  
 EUJENIO Eta laster... looo... (*Haurrari lo harrarazteko antzera.*)  
 LIBORIO Gezurra duk! Nahiago diat *arrestatuta* kuartelera joan.

V. IRUDIA  
LEHENGOAK eta ROMUALDO

- ROMUALDO (*Oso haserre.*) Zer egiten duk oraindik hemen?  
Etxekoandrea zain daukak bi orduan.
- LIBORIO (*Gezurra!*)
- ROMUALDO Aditzen al duk, astoa!
- LIBORIO Zain nago, oraindik ez ditu bukatu.
- ROMUALDO Eta urkilak? Erosi al dituk?
- LIBORIO Oraindik ez.
- ROMUALDO Hoa bada bitartean eroatera, astoa!, ez zaik ezer jaiotzen; nire konpainiako mandoak hik baino gehiago zekik.
- EUJENIO Esan iezaiok orain usainean ibili dela.
- ROMUALDO Hoa, hoa azkar, bestela botako haut zazpi egunerako gaztelura. (*Liboriok egingo du joatera.*)
- EUJENIO Hartu itzak, bukatu ditiat; to, to. (*Liborio bihurtuko da atetik zapatak hartu nahian.*)
- ROMUALDO Hoa hortik urkilen bila, gero hartuko dituk hauek... euli-mandoa!... Har ezazu, hartu honelako mutila etxean... joan!! (*Joango da besoak ibiliaz eta oinekin hots handia atereaz.*)
- EUJENIO Brum!!!... pum!!!... han zoak zezen-suzkoa! Hori duk labezomorroa! Hori joan izan bazen Melillara, garbitzen ditu Zaldi, Mitxina, Katu eta beltz guztiak... Ai Arroxa! Maiz asko eman beharko diozu kamamilaren ura bi axukre koxkorrekin pixka bat goxatzeko.

VI. IRUDIA  
EUJENIO eta KRISTOBAL

- KRISTOBAL (*Lehen bezala ate ondotik eta aurreko etxera begira.*)  
Egun on!
- EUJENIO Hemen duk berriz.
- KRISTOBAL Egun on, Eujenio. (*Etorriko da mahai aurrera, eta eseriko da Eujenioren aurrez aurre dagoen aulkian. Honek ikusiko du eskutitza eta hartuko du ezkutatzeko asmoan baina ez indianoak igarri gabe.*)
- EUJENIO Bai berorri ere!... ai eta eskutitza... ikusi dik!... galdua nauk!
- KRISTOBAL Zer duzu hori?
- EUJENIO Hau?... zera... zera... kontua... zapata hauen jabearentzat... barrenean bidaltzeko... (*Bildu eta sartuko du Rositaren zapata baten barrenean.*)
- KRISTOBAL Diru eske beti?
- EUJENIO Jan behar badugu.

KRISTOBAL Agindutakoa ekartzera nator. (*Dirua patrikatik atereaz.*)  
Eraman duzu?

EUJENIO Bai, jauna.

KRISTOBAL Eta nork hartu dizu?

EUJENIO Nork?... (baleki!).

KRISTOBAL Ez zenion neskameari emango, e?

EUJENIO Ez jauna... Roxitari berari eman diot.

KRISTOBAL Eta zer esan dizu?

EUJENIO Hitzik ere ez.

KRISTOBAL Esan al diozu eguerdian joango zarela erantzupenaren bila?

EUJENIO (Aurrera gezurrekin)... bai jauna.

KRISTOBAL Joan behar duzu, eta hori ondo ateratzen bazait, ez naiz zuzaz ahaztuko... Tori orain hau.

EUJENIO (Bost pezetakoa!) Eskerrik asko.

KRISTOBAL Zoru-erdi hauen alde, eta gehiago, dena zuretzat.

## VII. IRUDIA

### LEHENGOAK, LEONTXIO eta LIBORIO

LEONTXIO (*Atean agertu orduko luzatuko dio Eujeniori eskutitza*)  
To eskutitza.

EUJENIO Hago isilik.

LEONTXIO To, eta eramanez berehala, ia eguerdia duk eta.

EUJENIO (*Hasiko da zapata zahar bat mailuz joka ahopean esanaz.*) Hilko haut, hilko haut!...

KRISTOBAL Zer duzu hori?

EUJENIO Zera, beste kontu bat... orain berehala eramanez behar dudana... Honek egiten dizkit denak eta...

KRISTOBAL Liburuak eramateko bai al duzu *tenedorea*?

EUJENIO Baita *kutxarea* ere. (*Hori esaterako altxa eta joango da atze aldera Leontxiori ukabilazo bat emateko asmoan.*)

LEONTXIO Jo eta huts...! bule!

KRISTOBAL Azkar etorri hori eramanda; zain egongo naiz.

EUJENIO Bai jauna. (Ez naiz etorriko zazpi orduan) (*Leontxiori.*)  
Hilko haut!

LIBORIO (*Sartuko da eskuan erratza eta beste zerbait gauzarekin.*) Etxekoandrea zapatak.

EUJENIO Hi ere hemen al haiz?... Har itzak; hor zaudek.

LIBORIO Egun on. (*Hartuko ditu zapatak eta irtengo da berehala.*) (*Bitarte honetan Leontxio, Eujenioaren ondoren joanda dago ate ondoan keinuka hura txuliatu nahian. Ikusiko du Kristobalek eta altxatuko da jakin nahian zeini egiten dizkion eta orduan sartuko da hura.*)

KRISTOBAL Norekin ari da hori hor?

VIII. IRUDIA  
KRISTOBAL eta LEONTXIO

KRISTOBAL Nori egiten zenizkion keinu horiek?  
LEONTXIO Hor aurreko neskatxa gazte bati.  
KRISTOBAL Zeini, zeini?  
LEONTXIO Sudurpolitareneko Roxitari.  
KRISTOBAL E?... bai al duzu harekin zer ikusirik?  
LEONTXIO Nik? nola ez, nire andregai da eta.  
KRISTOBAL Zure andregai? Noiztik?  
LEONTXIO Orain dela (zenbat esango dut?) zazpi urte ezkerro.  
KRISTOBAL Ez da hori egia.  
LEONTXIO Zazpi urte ez dira ez; izango dira bederatzi; nolatan ez!  
hasi ginenean neska gazte-gaztea zen eta orain ia-ia zahartu da eta.  
  
KRISTOBAL Ez bada, oraindik ondo sasoikoa eta ederra dago.  
LEONTXIO Bai, bai, bakailao zahar beratu gabea dirudi.  
KRISTOBAL Ez da hori egia!  
LEONTXIO Zer da bada?  
KRISTOBAL Gezurra!  
LEONTXIO (*Oso mamitsu.*) Eta zuri zer zaizu?  
KRISTOBAL Niri? ezer ez...  
LEONTXIO Uste nuen bada.  
KRISTOBAL Bai zera! (ernegatzen nau ni honek)  
LEONTXIO Baina orain aspertu naiz.  
KRISTOBAL Izan ere, aspertzeko garaia bada horrenbeste luzatuz gero. Utzi egin behar zenuke.  
  
LEONTXIO Lau bider utzi dut eta beste hainbeste aldiz etorri zait negarrez nirekin ezkondu nahi duela esatera.  
  
KRISTOBAL Maitasun handia diozu.  
LEONTXIO Hainbestekoa non ni ez bezalako asko utzi dituen barregarri. Orain bertan indiano bat, berrogei mila pesoko etxea egiten ari dena.  
  
KRISTOBAL (*Oso larri.*) Egia da hori?  
LEONTXIO Bai gizona, izena ere badakit eta esango dizut nahi baduzu. (*Berea, ea zerraldo erortzen den.*)  
  
KRISTOBAL Ez esan, ez; (ni ote naiz? hau larria!...) zein da hau?  
LEONTXIO Ai Roxita, Roxita!  
KRISTOBAL Gaizki egiten duzu, bada, neska horrela edukitzea eta utzi egin behar zenuke.  
  
LEONTXIO Bai, ez naiz horien artean sartuko. A zer bi, ama-alabak! Bat sorgina bada, besteak infernuko etxeoandrea dirudi bere bizar eta guzti.  
  
KRISTOBAL (*Sutzen nau lotsagabe honek.*)  
LEONTXIO Ahozabalak, berritsuak, sorginak.

KRISTOBAL (*Indarrekin.*) Ez da egia!!  
LEONTXIO Zer da, bada?  
KRISTOBAL Gezurra!!!  
LEONTXIO Eta zuri zer zaizu?  
KRISTOBAL Niri... ezer ez... aja, ja, ja!  
LEONTXIO Badirudi bada... aja, ja, ja!  
KRISTOBAL Zu gizona, mutila edo zarena: gaizki egiten duzu honela inorengatik jardutea.  
LEONTXIO (*Nik honi Madrilera joateko dirua zarpatu behar diot.*) Bai, arrazoi duzu, neronek ezagutzen dut; baina zer egin ez jakinak jartzen nau buruhauste handian. Bi bide bakarrak ikusten ditut zabalduak: Ez egitekoren bat egin edo urrutira joan, gehiago bere berririk jakingo ez dudan lekura. (*Geldituko da buruari helduaz.*)  
KRISTOBAL (*Eroa dago, zerbait gaiztakeria egingo du. Ai Roxita! Ai Kristobal!*)  
LEONTXIO Aurreneko buruzpiderako hau nahikoa dut. (*Mahai gainetik zapatagilearen labana hartuaz.*)  
KRISTOBAL Ez, gizona, ez, bigarrena duzu errazena, urrutira joatea, Ameriketara edo...  
LEONTXIO Pozik hara, baina nola? Ardit bat ez badut?  
KRISTOBAL Gizona, aurkituko duzu. Ez da gaur asko behar; mila bat pezetarekin asko duzu.  
LEONTXIO Mila pezeta, ez ditut eta ez ditut izango... berak ematen ez badizkit eskatu dizkiodan bezala. (*Joanaz ate aldera.*)  
KRISTOBAL Nora zoaz?  
LEONTXIO Beragana; eguerdia da, eta ordu honetarako zain egoteko esana daukat.  
KRISTOBAL (*Eta presisamente* nik ere bai.) Jauna, jauna zer gertatu behar du?  
LEONTXIO Agur.  
KRISTOBAL Zaude, zaude.  
LEONTXIO Zertako?  
KRISTOBAL (*Kristobal, Roxitagatik eman ezak...*) Nahi dituzu mila pezeta Ameriketara berehala joateko?  
LEONTXIO Nork emanda?  
KRISTOBAL Nik.  
LEONTXIO Ez, nahiago dizkiot berari kendu, eta ez badizkit ematen... jas!  
KRISTOBAL Ai Roxita, Roxita!... Tori, tori... (*nire etxeko langileentzat neramana.*)  
LEONTXIO (*Botako du labana lurrera eta hartuko du dirua.*) Ekarzu bada, eskerrik asko. Lagundu nazazu trenbidera, han azkeneko besarkada eman diezazudan.  
KRISTOBAL Ez, zoaz bakarrik. Eujenioren zain gelditu behar dut.  
LEONTXIO Gizon bulartsua! zure izena?

KRISTOBAL  
LEONTXIO

Ernialdetar Kristobal. Eta zurea?  
Aizgorritar Leontxio. (*Elkarri esku emanaz.*) Kristobal,  
eskerrik asko... Roxita, betiko agur!!

IX. IRUDIA  
KRISTOBAL (*bakarrik.*)

KRISTOBAL

Rosita nirea da! Jaunari eskerrak gaur hemen gertatu naizela. Garexti xamar jo dit baina Roxitagatik ondo emanak daude guztiak. Hori gizaseme zakarra! Ez dut uste igarri didanik Roxitaganako nire maitasuna, hain ederki ezkutatu dut, bestela ui!, garbitzen nau. Hori ez bezalakoxea hartu behar nau ni; dirutsua, bihozbera eta moñoñoa. Oraindik ez banago bada ni gustagarria! Eujenio ez da ageri. (*Erlojuari begira.*) Eguerdia. Erantzupenaren bila joateko ordua. (*Karrikara begira.*) Ez da ageri Eujenio... eta ezta Roxita ere. (*Aurreratuko [da] poliki-poliki eta bat-batean hartuko du asmo berria.*) Neroni joango naiz. Zergatik ez?... Bai; eta hemengo gertaera esaten diodanean, eta Leontxio zer den agertzen diodanean, eta nik egin dudana jakiten duenean, a! bene-benetan baiezkoa emango dit, gainera hauek denak ikusten badizkit. (*Erlojuaren katea, eraztunak...*) eta *presisamente* gaur erretena ere, nire ile ederrean, egundaino baino hobeto atera dut... banoa. (*Antolatuko da pixka bat.*) Goazen moñoño!! (*Irtengo da gora begira.*)

X. IRUDIA  
EUJENIO gero LEONTXIO

EUJENIO

Ui! eskerrak gora begira dabilela, bestela harrapatzen nau. Roxitagana doa. (*Aurreratuaz.*) Ez dauka kezka makala zer esaten dion jakin artean.

LEONTXIO

Eujenio, hire bila nabilek.

EUJENIO

Zertarako?

LEONTXIO

Bazkari on bat elkarrekin egiteko.

EUJENIO

Nik herorri bazkalduko haut. Ezer bai al daki?

LEONTXIO

Dena.

EUJENIO

Eskutitza ireki dugula?

LEONTXIO

Dena.

EUJENIO

(*Lepotik heldu nahian.*) Hator hona, hilko haut!

LEONTXIO

Orain hago geldirik. Goazemak bazkaltzera eta gero hilko nauk.

EUJENIO Hirekin? Ezta Ezkurrarenera ere! lotsarik gabeko kirtena, zorrez jositako alferra...

LEONTXIO *(Aterako ditu diru paperak eta berekin joko du ahoan.)*  
Txist...

EUJENIO Oi! Zer dira horiek?

LEONTXIO Hauek? Ikus itzak.

EUJENIO Zenbat dira?

LEONTXIO Ea, zenbatu itzak, ehunekoak dituk. *(Eskuan hartu eta zenbatuaz.)*

EUJENIO Ehun eta ehun, berrehun, eta berrehun, laurogeita ehun, eta ehun, hamarrogei eta laurehun.

LEONTXIO Aja, ja, ja...! iaioa hago!

EUJENIO Ez, ez gaizki ari ninduan, hago. *(Behatzekin zenbatuaz.)* Ehun eta ehun (bat, bi) bi ehun eta ehun (bat, bi, hiru), hiru ehun.

LEONTXIO Hiru ehun, bai, hiru egun; ondo ari haiz: igandea, astelehena eta asteartea, hik egingo dituan hiru jaiak.

EUJENIO Bai zera! gaur ez noak.

LEONTXIO Ez, zera egingo duk. Hemen zaudek lau mila erreal.

EUJENIO Nola arranotan atera dituk?

LEONTXIO Hire etxe-jabeak eman zizkidak.

EUJENIO Kristobalek eman lau miloi, edo lau mi-mila erreal?... Zer egin diok bada?

LEONTXIO Ezer ez, gaur zegoan xamurra...

EUJENIO Eta bihar?...

LEONTXIO Zimurra. Itxi ezak atea eta goazemak Bartolorenera bazkaltzera.

EUJENIO Hoa aurretik, berehala nauk hirekin.

LEONTXIO Aurki arte, zain egongo nauk. *(Jantziko du Eujeniok zintzilik zeukan zamarra eta haren lekuan jarriko du amantala.)*

EUJENIO Nire etxejabea erotu egin da. Niri dirua eskaini, Leontxiori eman, neskaren atzetik hasi... ai, ai, ai!... Horrenak egin du. Nola ote dago orain Roxitaren ondoan... baba dariola. Ai Roxita, Roxita! Ai Kristobal, Kristobal!

XI. IRUDIA  
EUJENIO eta KRISTOBAL

*Eujeniok azkeneko hitzak esaten dituenarekin batean sartuko da Kristobal antsika eta marruaz, norbaitengandik ihes baletor bezala. Etorriko da buru hutsik, eta hain hutsik non ile bat ere agertuko ez zaion, ileordea (peluka) galdu baitu. Soinekoak ere oso banatuak eta tresna oso txarrean. Eujeniok ez du ezagutuko, eta ikusten duenean itxura hartako gizona, etorriko da aurrera; orduan Kristobalek egingo du hori bera eta hark ikusirik gainera datorkiola, joango da mahaiz atzera, eta izur-zaparrarian Kristobal ere bai; baina trabatuko da aulkian eta eroriko da lurrera aulki, mahai eta guzti.*

KRISTOBAL (Sartuaz.) Ai Eujenio, Eujenio!  
EUJENIO (Aurreratuaz.) Zein da hau?  
KRISTOBAL (Aurreratuaz.) Ai Eujenio, Eujenio!  
EUJENIO (Mahai atzera.) Geldi, geldi! Zoaz hemendik.  
KRISTOBAL Eujenio, lagundu nazazu! (Erortzen da mahai eta guzti.)  
Ai, ai, ai, ai!... hil naiz! hil naiz! zer sartu zait niri hemen?  
EUJENIO Oi! Berori al zen?  
KRISTOBAL Ai! ai! Eujenio, zer sartu zait hemen? (Ezten bat bere petik atereaz.)  
EUJENIO Takoi eztena!  
KRISTOBAL Hil naiz... ai, ai!  
EUJENIO Ez, gizona; altxa bedi, hara... aupa! Baina, zer da itxura hori?  
KRISTOBAL E?  
EUJENIO Nola dator? Zer gertatu zaio?  
KRISTOBAL Ez dakit; baina, Eujenio, hil naute. (Eskuak bururatuko ditu eta aurkituko da hutsik ileordea galduta; orduan eroaren antzera hasiko da batera eta bestera.) Oi?... non dut?... ez daukat... ez daukat... buru hutsik nago. Ai nire burua! ai nire ilea! zer esango dute ni horrela ikusten nautenek? Ai nire burua! ai nire ile ederra! ai nire erretena!  
EUJENIO Erotu egin da. (Bere aurrez aurre jarri eta oihu egingo dio.) Kristobal!  
KRISTOBAL (Geldituko da bat-batean bere aurrean eta eskuak burutik kenduaz erakutsiko dio esanaz.) Begira! begira!! begira!!!  
EUJENIO Flandesko gazta dirudi.  
KRISTOBAL Ekar iezadazu berehala, Eujenio.  
EUJENIO Flandesko gazta?  
KRISTOBAL Ez, nire ileordea.  
EUJENIO Nondik?  
KRISTOBAL Hor aurretik, sorgin horien etxetik.  
EUJENIO (Ai ama! haserretu egin dituk.) Baina nolatan galdu du?  
KRISTOBAL Galdu ez, kendu egin didate. Zoaz, zoaz azkar, Eujenio.  
EUJENIO Ni? Ederki eman ere! Ez noa.  
KRISTOBAL Egin iezadazu esker hori.

EUJENIO Ez, ez, ni horrela jartzen banaute egun guztian *doministikuka* egongo naiz.

KRISTOBAL Nire ileordea ekartzen badidazu, hartzeko nagoen diru guztia barkatuko dizut.

EUJENIO Orain arteko guztia? Joango naiz. Baina, zer gertatu zaio?

KRISTOBAL Nik al dakit? Nola zu agertzen ez zinen joan naiz neroni Roxitaren etxera, jo dut atea, irten zait andre motz bat, eta entzunik zein naizen hasi da marruka esanaz txarkeria haiek ez zaizkiola inori esaten, gutxiago berriz bere Roxita ederrari, eta gero gehiago eta gero gehiago igo da, haserrean sutu arte, nik hitzik ulertzen ez dudala, eta etorri zait gainera, eta atzamarka, eta ostikoka, eta horzka, eta ipurdi-trankaka atera nau ate ondotik eta bota nau amilka mailetatik behera hankaz gora.

EUJENIO Gizona, gizona!

KRISTOBAL Hori asko ez dudala, ni lurrean nagoela atera du oinetik eskalapoi halako bat, eta bota nau indar guztiekin burura.

EUJENIO Gizajoa! Eta ez dio esan zergatik zeuden haserre?

KRISTOBAL Eskutitzarengatik bada; baina ezin liteke horrengatik izan, oso ondo egina zegoen eta.

EUJENIO Orduan?

KRISTOBAL *Presisamente* zazpi egun behar izan ditut nahikoa hitz goxo eta egoki biltzeko.

EUJENIO Sinisten dut.

KRISTOBAL Eujenio, arren eskatzen dizut, zoaz eta ekariezadazu ileordea.

EUJENIO Emango al didate?

KRISTOBAL Bai, gizona, zertarako dute hura? (*Patrikatik atereaz.*) Tori orain arte zor dizkidazun etxe-errentaren txartelak.

EUJENIO Eskerrik asko, banao; berehala hemen naiz bizirik uzten banaute.

KRISTOBAL Zaude, zaude: eta norbait etortzen bazait bitartean? Zer egingo dut itxura honetan?

EUJENIO Ez larritu, inor gutxi etortzen da.

KRISTOBAL Eta etorriko balitz?... ezkuta nazazu bitarterako.

EUJENIO Non? mahaipean?

KRISTOBAL Ez, txikia da.

EUJENIO Beste lekurik ez dut bada.

KRISTOBAL (*Ikusirik zintzilik dauden boina eta amantala.*) A! hauek jantziko ditut eta honela inork ez nau ezagutuko.

EUJENIO Ez, hala da, aja, ja, ja...! eta ez dago gaizki, zapatagile jatorra dirudi.

KRISTOBAL (Bazeneki Ameriketara zer nintzen) Zoaz agudo barre gutxirekin.

XII. IRUDIA  
KRISTOBAL, gero LEONTXIO

KRISTOBAL Ez dut nik barre handirik egiten. Ai jauna! Hau eguna sortu zait niri gaur! Non dira nire gaur goizeko apainketak!, nire ur usaindunez busti eta erreten zuzena ateratzeak! (*Entzungo da kaletik*)

LEONTXIO (*Barrendik*) Eujenio!

KRISTOBAL E? zapatagilearentzat ote da? Eseri nadin badaezpada ere eta ea nola egiten dudan haren *papera*. (*Eseriko da mahai aurreko aulkian ateari atzea emanaz, baina egingo du antsi bat eta altxatuko da bizkor.*) Ai! zer dago hemen? Zoru-erdi bat iltzez josia! arranoa! hau ere nire kaltez. (*Hartu eta botako du harrika Leontxio ate aurrean jartzen den garai berean eta joko du aurpegian.*)

LEONTXIO Ai!

KRISTOBAL Norbait jo dut, gaur ni hil egingo naute.

LEONTXIO Erotu egin al da hau?

KRISTOBAL (*Eseriko da eta hasiko da laneko antzera; ikusirik ingurura datorkiola ekingo dio "Ni bekataria..." esateari.*) Badator, badator... Ni bekataria konfesatzen natzaio Jainko guztiz ahaldunari... nire kulpaz... nire kulpaz... (*Bitarte honetan aurreratuko da Leontxio eta botako dio zoru zaharra burura.*)

LEONTXIO Oi, lanari eraso dio. Eta ni bazkaltzeko honen zain. Aterako dizkizut nik kaikukeriak.

KRISTOBAL (*Ikaraz beterik altxa eta joango da eskuinetako hormara eta han norbaitekin ari balitz bezala hasiko da eskuan dituen mailu eta zapatarekin keinadaka.*) Ai, ai, ai!... laga niri! alde, alde hemendik!... bestela hilko zaitut... tori, tori... (*Gelditu eta isildu eta jarriko da horma aldera begira Leontxiori bizkarra emanaz.*)

LEONTXIO Buru hori ez daukak ondo!

KRISTOBAL Zer zaizu zuri nire buruarengatik. Oi! Leontxio da! (*Ezkutatuko du aurpegia esku artean, beti hormari begira. Etorriko da Leontxio eta ikusirik alferrik dabilela aurpegia ikusi nahian, heldu eta aterako dio txapela eta joko du ukabilarekin buru gainean.*) Kaikua! zer uste duzu dela nire burua?

LEONTXIO Oi! Kristobal al zera? (*Lehen bezala ukabilaz joaz.*) Katuari bezala *desmaio* frantsesak heldu zizula uste nuen.

KRISTOBAL Astoa! Egongo al zara geldirik?

LEONTXIO Hori da *meloia* duzuna!

KRISTOBAL Eta zuri zer zaizu?

LEONTXIO Tifusen batekin galde al duzu ilea?

KRISTOBAL Ez... *trankazo* batekin.  
 LEONTXIO Orain?  
 KRISTOBAL Ez... aspaldi; Ameriketan.  
 LEONTXIO Ameriketan? Orduan bat ere ez noa. Ez dut nik tipula bezalako burua izan nahi.  
 KRISTOBAL Arrazoi duzu, hobe duzu gelditu. Ekar ieazkidazu mila pezetak.  
 LEONTXIO Mila pezeta? Zeinenak?  
 KRISTOBAL Nireak, nik eman dizkizudanak.  
 LEONTXIO Eman badizkidazu, ez dira orduan zureak.  
 KRISTOBAL Bai, baina...  
 LEONTXIO Zer baina? nire gauzen jabe ni naiz, eta ez didazu zuk erakutsiko berekin zer egin behar dudan.  
 KRISTOBAL Lotsagabe tzarra. Ostu egin didazu, ekarzu nirea.  
 LEONTXIO Nik, aja, ja, ja...!  
 KRISTOBAL Ekarzu, ekarzu.

### XIII. IRUDIA LEHENGOAK eta EUJENIO

EUJENIO (*Esku batean ileordea zintzilik eta bestean eskutitza.*)  
 Har beza.  
 KRISTOBAL E?... A nire ileordea! ekarzu... ui! zikina dago... pua!!!...  
 Hau usaina!... zer du honek?  
 EUJENIO Zakarretara botea zeukaten, eta handik atera dut perloien heste eta katuaren zikin artetik.  
 KRISTOBAL Pua!! Hau nazka! (*Tartetik atereaz.*) Zer da hau? Porru perrexil xorta...  
 EUJENIO Esan didate hau ere ekartzeko; ez dutela Roxitagatik honela jartzen duen eskutitzik ukitu nahi, ezta puskatzeko ere.  
 LEONTXIO E? Horrek Roxitari idatzi al dio.  
 KRISTOBAL Bai eta zuri zer zaizu? Ekarzu, Eujenio. (*Kristobalek baino lehenago Leontxiok aterako dio eskutik.*)  
 LEONTXIO Nik irakurritakoan emango dizut.  
 KRISTOBAL Ekarzu orain bertan, nirea da eta.  
 LEONTXIO Emango dizut, baina irakurritakoan; (*Kristobal etorriko da eskuan ileordea duela Leontxiori eskutitza kentzera eta honek jo eta botako dio lurrera.*) Estal ezazu zuk bitartean ilargi-bete hori, eta zoaz hemendik ile usain zikindun horrekin.  
 KRISTOBAL Alproja, lotsagabe!  
 EUJENIO (*Ileordea jasoaz.*) Goazen garbitzera.  
 LEONTXIO (Nik egindako eskutitza; ahaztu ere egin zait zer jarri diodan):  
 "Roxita sorgina, neskazahar zinbruna, hortz ustel zatarra..."

KRISTOBAL  
LEONTXIO Hori ez da nire eskutitza.  
“Hori guztia eta gehiago zarelako, inor gizon inguratuko ez zaizulako, eta ezkontzeko amorratua zaudelako, ni Kristobal de los Ernialdes...”

KRISTOBAL  
LEONTXIO E, zer esaten duzu, gizona?  
...“ni Kristobal de los Ernialdes, indiano jatorra, hankoker traketsa, muturbeltz zekena...”

KRISTOBAL  
LEONTXIO Zaude isilik, ez du hori jartzen eta.  
(*Haserre antzean.*) Zoaz hemendik!... Eujenio heldu nazak, bestela hilko diat nik hori.

EUJENIO  
LEONTXIO Zer ari haiz irakurtzen?  
LEONTXIO Hilko dudala, heltzeko, heltzeko agudo.  
EJENIO (*Jarriko da bere atzean bi besoetatik helduaz.*) Hago bada geldirik.

LEONTXIO Eusten al nauk ondo?  
EJENIO Bai.  
LEONTXIO “Begiak itxita, jardunari gogor eginda, kezkarik gabe, bulartsu eta bihoz dun, jartzen naiz zurekin ezkontzera, eta zu itsusi puska! nire emaztetzat hartzera...”

#### XIV. IRUDIA LEHENGOAK eta ROMUALDO

ROMUALDO (*Sartuko da oso bizi, eta zuzen-zuzen joango da Kristobalengana eskuko makila altxatuaz.*) Zu, zapatagile zarpaila, zeinen eraman-ekarria zara zu?

KRISTOBAL Ni?

ROMUALDO Zu, lotsagabe tzarra. Nahi al duzu burua puskatzea?

KRISTOBAL Ez, ez, nahikoa dut lehenagokoa.

ROMUALDO Zer bidali diozu nire emazteari zapataren barrenean?

KRISTOBAL (1) Nik...

EJENIO (Oi! Roxitaren eskutitza, nik sartu dudana.)

ROMUALDO Bai zuk.

KRISTOBAL Ni ez naiz zapatagilea, hura da.

ROMUALDO Hori? Eta nolatan zaude zu amantal horrekin?

KRISTOBAL Ez dakit.

ROMUALDO Ez dakizula? (*Emango dio bultzaldi bat eta jarriko dira biak hizketan.*)

EJENIO Goazemak, hi, azkar.

LEONTXIO Zer egin duk?

EJENIO Hik busti duan eskutitza ezkutatzegatik zapata zaharren barrenean sartu, eta *asistenteak* eraman.

LEONTXIO Eta horren emazteak hartu.

ROMUALDO (*Eujeniori.*) Zu zara beraz, e?... Zatoz hona.

LEONTXIO (*Inguratzea galaraziaz.*) Ez, utz iezaiozu honi. Hori da eskutitzaren jabea, zapataren barrenean bidali duena: Kristobal de los Ernialdes.

KRISTOBAL Ni, ni?... Nik horren emazteari idatzi?... Ez da egia.

LEONTXIO Bai, jauna; eta baita beste bati ere: hona non dudan...  
Horretan jarduten da.

ROMUALDO Ikusiko duzu, euli-mandoa!

KRISTOBAL Nik bati bakarrik egin diot, Roxitari, eta da asko maite dudalako.

ROMUALDO E!!!... eta esan egiten du.

KRISTOBAL Bai bada, eta *presisamente*.

ROMUALDO Hilko dut... tori... tori...

LEONTXIO Eman, eman.

KRISTOBAL Ai, ai!... *presisamente, presisamente. (Eujeniok helduko dio besotik Romualdori eta geldiaraziko du jotzeaz. Orduan ihes egingo du Kristobalek presisamente esanaz. Romualdo geldituko da errabiaz josirik iruditegiaren erdian, geldi-geldi, aurpegi hutsez ernegaziozko keinu zatar batzuk eginaz.)*

EUJENIO Kristobal gizajoa!... zaude geldirik gizona!

ROMUALDO A!! ez dut hil, ez dut hil... zuregatik.

(1) Eujenio, Leontxio, Romualdo, Kristobal.

#### XV. IRUDIA LEHENGOAK, (Kristobal gabe) eta LIBORIO

LIBORIO Jauna!

ROMUALDO Ez dut hil! bizirik joan da!

EUJENIO Kristobal gizajoa ia garbitu zuen.

LIBORIO Nagusi jauna.

LEONTXIO (*Romualdori.*) Zure bila dator.

ROMUALDO (*Oso garratz.*) Zer egiten duk hor?

LIBORIO Etxekoandreak esan dit oso *triste* dagoela bakarrik eta azkar joateko.

ROMUALDO (*Zakarkeria denak laga eta jarriko da bat-batean oso bihozbera, eta esango du leun-leun.*) Izan ere, nire Roxita kuttunak, ni gabe, bakar-bakarrik daramatza hiru ordu laurden. (*Erlojuari begira.*) Nire bildotx maitea!... (*Hori esanaz joango da, eta Liborio atzetik, aurrena soldaduek ohi duten bezala eskua igoaz agur eginda.*)

#### XVI. IRUDIA EUJENIO eta LEONTXIO

LEONTXIO Zer haize boladak jo ditu gaur agure horiek, aja, ja, ja! hiri ere xamurtu egin al zaik bihotza?

EUJENIO Zer esaten duk?

LEONTXIO Andregai bila hasi behar duan.

EUJENIO Andregai bila ez baina gaur bertan denda bila bai.

LEONTXIO Hauek ahitu arte ez. (*Dirua erakutsiaz.*) Goazemak  
Bartolorenera.  
EUJENIO Ez noak.  
LEONTXIO Hik egingo duk nik nahi dudana. Joango gaituk orain  
Bartolorenera, gauean Ezkurrarenera, bihar Urbanara,  
etzi Mallorkinara.  
EUJENIO Eta etzidamu Tturkoenera (*kanposantura*).  
LEONTXIO Ibiliko gaituk goizean kotxean, eguerdian trenean,  
arratsaldean automobilean, eta...  
EUJENIO Eta gauean ohera airean.  
LEONTXIO Denetara, hauek ahitu artean parranda!!  
EUJENIO Eta egoki aurkitzen al duk ni horrela ibiltzea?  
LEONTXIO Hain egoki, non hik emango duan ontzat esaera  
zaharra.

Aldiz, aldiz  
zapatagilea zaldiz!